

Abuztuan, 160 kutsatze Lasarte-Orian

LABI batzordeak iragarritako neurri berriak indarrean sartu dira iraila iristearekin batera: oro har, establezimenduetako edukierak %60ra handitu ditu, eta taberna eta jatetxeetakoak, %50era / 4

**2020 eta 2021eko
Jalgune elkartearen
jarduna diruz
lagunduko du Lasarte-
Oriako Udalak** / 3

**Herritarrak kide
dituzten Hondarribia
eta Arraun Lagunak,
Kontxako Bandera
jokatze sailekatuta** / 10

**Udazkeneko
denboraldiari hasiera
eman aurretik,
biltegiko produktuen
eskaintza herrian** / 5

**Txirrintulari
lasarteoriarrek maila
eman
dute abuztuko
lasterketetan** / 12



Lurpeko edukiontziei agur

Hiri hondakinak biltzeko eredu berri bat proposatu du Udal Gobernuak / 2

TXINTXARRI



**Ikasi euskara,
bidelagun onenarekin**

aek
euskara praktikoa
eman izena!

Muntteri AEK euskaltegia MATRIKULAZIOA ZABALIK

A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
AURREZ AURRE eta AUTOIKASKUNTZA bidez.
MINTZA-TALDEAK: Astean 2 egunez.

Geltoki kalea 17 Lasarte-Oria |
607 625 233 | lasarte@aec.eus |
Bulego ordutegia: 11:00-13:00 / 18:00-20:00



David Mateos Zerbitzuetako batzordeburuak eta Agustín Valdivia alkateak aurkeztu dute proposamena. TXINTXARRI

Proposamena, lur azpiko edukiontziak kentzea

Lasarte-Oriako hiri-hondakinak jasotzeko sistema aldatu nahi du udalak: lurpeko edukiontziak kentzea eta errefusa biltzeko edukiontziei txartel elektronikoa jartzea dira oinarriak. Eredu berria onartzekotan, 2022. urtean zehar gauzatuko luke

Txintxarri

Lurrazpiko edukiontziak kentzea proposatu du Udal Gobernuak, eta errefusa biltzeko kontenedoreei txartel elektronikoa jartzea, organikoa biltzeko ontziari bezala. Agustín Valdivia alkateak eta David Mateos Zerbitzuetako batzordeburuak aurkeztu dute proposamena. Azken horren hitzetan, "konponbide onenaren,

eraginkorrenaren eta herriaren beharrei ongien egokitzen zaienaren alde" egin du Udal Gobernuak. Korporazioa osatzen duten beste udal taldeei abuztua baino lehen eman zien egitasmoaren berri, Zerbitzuetako batzordean, eta "iritzi onak" jaso zituztela azpimarratu du Mateosek. Dena den, hiri hondakinak jasotzeko proposamen

berria ez da behin betikoa oraindik. "Lan asko egin behar dugu, eta gauza asko adostu; lehenik eta behin, udal talde guztiak ados egotea nahiko genuke, ezarri nahi dugun sistemak epe luze batean funtziona dezan". Guztiek bat egingo balute ere, Valdiviak eta Mateosek argi utzi dute eredu ez dela "egun batetik bestera" aldatuko. Ondo

bidean, 2022. urtean zehar ezartzea espero du Udal Gobernuak.

Lur azpiko edukiontziak kentzea eta errefusa biltzeko kontenedoreei txartel elektronikoa jartzea dira oinarrietako batzuk, baina ez bakarrik: ontzi horiek ordezkatzeko, udalak gehiago jarriko ditu lurgainean, eta haien irisgarritasuna "ahalik eta gehien" zaintzen saiatuko da, herritar guztiak aukera izan dezaten zaborra botatzeko. Horretarako, gaur egun udalerrian dauden zaborra botatzeko guneak berriro diseinatu beharko direla aurreratu du alkateak.

Gaikako bilketa hobetzea xede

San Markos Mankomunitatearen datuen arabera, Lasarte-Oriak hiri hondakinaren %46,5 bildu zuen gaika 2020an; Gipuzkoako herrietako kopururik apalenetako bat da hori. Lurpeko ontziak kenduta eta errefusa biltzeko txartel elektronikoa jarrita, Udal Gobernuak honako helburu hauek jarri dizkio herriari: 2025. urterako zaborraren %55 biltzea gaika, eta 10 urte beranduago, 2035ean, %65.

Norabide horretan, herritarren inplikazioa "funtsezkoa" dela azpimarratu dute Valdiviak eta Mateosek. Horretarako, sentsibilizazio kanpaina "indartsu" bat egingo dute, proposamenean jaso dutenez: "Oinarritzkoa da lasarteoriatarrek jakitea nola bereizi behar dituzten hondakinak, nola birziklatu behar dituzten... Horretarako, eskuorriak ez ezik, gai honetan adituak diren hezitzaile batzuek etxe etxe egingo dute lanketa hori", zehaztu du Mateosek. "Horrez gain, gida informatiboak sortuko ditugu, gune bat jarriko dugu herrian...". Valdiviak adierazi du udalak "arretaz" zainduko duela gaikako

bilketa nola egiten den, organikoarena eta errefusarena batez ere. "Orain arte, sistema borondatezkoa izan da, baina sistema hori ezarritakoan, ez da egongo beste aukerarik hondakin horiek edukiontzietara botatzeko; helburua da edukiontzi organikoa ahalik eta gehien erabiltzea; errefusarena, berriz, ahalik eta gutxien, biltzen den zabor organikoa ahalik eta puruena izan dadin". Udal ordezkari horiek jakinarazi dutenez, Lasarte-Oria da materia hori "ongien" bereizten duen Gipuzkoako udalerria: "Tasa %100etik gertu dago".

Proposamenaren aurrekontua

Hiri hondakinak jasotzeko sistema berria ezartzeak 339.956 euroko kostua izango du, udalaren estimazioen arabera. Edonola ere, kopuru hori aldatu egin daiteke. Hauek dira jaso diren gastuak: 120.000 euro kanpaina burutzeko; 109.626 euro errefusa biltzeko edukiontzientzat eta txartel irakurgailuentzat; 93.630 euro lurrazpiko kontenedoreak kentzeko; eta 11.700 euro txartel elektronikoa erosteko eta sistema martxan jartzeko. Mateosek jakinarazi duenez, 2021eko aurrekontuetan jasota dago diru partida hori.

Udal Gobernuak hiru aukera aztertu zituen: lurrazpiko ontziak bere horretan mantentzea; kontenedore metalikoak mantentzea soilik; edo ontzi berriak erostea, "ahalik eta irisgarrienak".

**EREDU BERRIAREN
AURREKONTUA
339.956 EURO
INGURUKOA
IZANGO DA**

Galdeketo emaitzez haragoko lanketa

Zer egin behar du Lasarte-Oriako Udalak egungo lurpeko edukiontziekin?. Galdera hori egin zien udalak herritarrei pasa den apirilaren 25eko kontsultan. *Mantendu* edo *Ezabatu*, horiek erantzun posibleak. Emaitza loteslea izan zedin, parte-hartzeak %30ekoa izan behar zuen gutxienez, baina portzentaje horretatik urrun geratu zen: bozkatzera deituta zeuden lasarteoriatarren (guztira, 15.695) %7,78k bakarrik eman zuen bere iritzia, hau da, 1.258 lagunek. Bozka eman zuen gehiengoak lurrazpiko

edukiontziak kentzearen alde egin zuen (702 iritzi). Kontrakoa adierazi zuten 552 herritarrek.

Valdiviak eta Mateosek onartu dute parte-hartzea "oso baxua" izan zela, eta herri galdeketo emaitza "oso urrun" geratu zela lotesle izatetik. "Kontsultaren emaitzak kontuan izan ditugu proposamena lantzerako orduan, baina ez dugu bozketa horretara lotu soilik". Udal ordezkariak zehaztu dutenez, "galdeketoaren emaitzak jakin bezain laster" hasi ziren lanean,

"alternatiba desberdinak" aztertzen: Andoain, Errenteria eta Urnietako ereduak (hiru horietan errefusaren edukiontziak txartel elektronikoa du) hartu zituzten oinarri, eta San Markos mankomunitatearekin ere "etengabe" izan dira harremanetan.

Ordenantza fiskalak aldatzen

Valdiviak eta Mateosek aurreratu dute ordenantza fiskaletan "aldaketa batzuk" egin nahi dituela Udal Gobernuak, hiri-hondakinak "behar bezala" kudeatzen dituzten herritarrek hobariak jaso ditzaten.

"Udal teknikariak zirriborroa lantzen ari dira; prest dagoenean, Zerbitzuetako batzordera eramango dugu, gainontzeko alderdiekin lantzeko", aipatu du alkateak. Horri lotuta, Valdiviak azaldu du gaur egun lasarteoriatarrek ordaintzen duten zabor tasak estaltzen duela kudeaketa gastu guztien %48.

Hiri hondakinak biltzeko eredu berria lantzerako orduan, Mateosek adierazi du oinarriak izan direla "jasangarritasuna, irisgarritasuna eta aurrekontua", eta proposamenaren ardatzetako bat "ekonomia zirkularra lantzea" izango dela.

Bi urteko hitzarmena sinatu du Jalgunerekin

2020ko eta 2021eko elkartearen jarduna diruz laguntzeko hitzarmena sinatu dute udalak eta Jalgunek asteen. Duela 30 urte eman zituen lehen pausuak Jalgunek, eta orduz geroztik, aniztasun funtzionala duten pertsonekin jarraitzen du lanean

Txintxarri

Asteazken eguerdian sinatu dute Agustin Valdivia alkateak eta Pili Bermejo Jalgune elkartearen lehendakariak 2020ko eta 2021eko ekintzak lagunduko dituen hitzarmena. Prentsaurreko horretan jakinarazi dute 74.000 euroekin lagunduko duela udalak elkartearen jarduna.

Eskertza hitzak zuzendu dizkio alkateak elkarteari. Aitortu du Jalgunek "eginkizun bikaina" betetzen duela bertako egoiliarrak Lasarte-Orian integratzeko. Gogorazari du irisgarritasuna ez dela herriko kale zein plazetan mugitu ahal izateko baliabideak jartzera soilik mugatzen, baizik eta pertsona orok herriko aisian eta jardueren parte izateko aukera izatea.

Gogora ekarri du elkartearen aurtengo 30. urteurrena; pozik agertu da horrekin, izan ere, bertan dauden konpromisoaren, erabiltzaileen gogobetetzearen eta ondo egindako lanaren erakusle dela uste baitu.

Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Lourdes Acevedok hartu du hitza gero, eta alkatearen antzera, eskerrak eman dizkio elkarteari. Eskerrak eman dizkio



Alkatea, Jalguneko lehendakaria eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia. TXINTXARRI

30 urtetan aniztasun funtzionalaren gaian "lan garrantzitsua" egin duten boluntario guztiei: "Jalgunek azpimarratu du udalerrian antolatzen diren jardueretan beti parte hartzen duten talde bat udalerrian integratzea lortu du".

Pili Bermejo elkartearen lehendakariak ere hitz egin du, eta, esan du, 30. urteurrena Jalgune osatzen duten familiena, proiekta babestu duen udalaren, begiraleena, boluntarioena, eta unean-unean parte hartu duten pertsonena dela, eta, gaur gaurkoz, COVID-19aren osasun

krisia dela eta egin ezin dituzten ekintzak egin ahal izateko nahia agertu du.

74.000 euroko laguntza

Udal ordezkariak jakinarazi dute 74.000 euroekin lagunduko dutela elkartearen jardura; 37.000 euro 2020. urtekoa babesteko, eta beste horrenbeste 2021eko laguntzeko.

Dirulaguntza horren bitartez finantzatu dira, besteak beste, jarduera ludikoak, kirolekoak, ingurumenekoak, asteburuko jarduerak, herriko ekintzetako parte hartzea, familiei orientazioa ematea, eta abar.

II. Erabilgarritasunezko Kirol Mendetasun Lehiaketa

Xuhakan Txakur Elkarteak lehiaketa antolatu du irailaren 5erako. Goizeko 09:00tik aurrera hasiko da saioa

Txintxarri

Lasarte-Oriako Xuhakan Txakur Elkarteak II. Erabilgarritasunezko Kirol Mendetasun Lehiaketa antolatu du, eta, ohartarazi dute txakurren jabeek, animalia adina, arraza edo mestizajea alde batera utzita lehiatu dezaketela; kirola egiteko nahitik sortzen den diziplina bat dela.

Jakinarazi dute lehiaketaren helburu nagusia ez dela txakurrak jabea uneoro obeditzea, baizik eta animalia gidariaren eta animalia beraren arteko lotura, jarrera, motibazioa eta

sortzen diren ariketetan perfekzioa lortuz gozatzea. Egiten dituzten ariketak txakurren eguneroko hezkuntzarako baliagarriak direla ere azaldu dute.

Elkarteak argitu du "edozein txakur" dela egokia praktika horiek aurrera eramateko, eta, animalia gidaritzan edozein pertsona aritu daitekeela.

Lehiaketa ikustera animatu dute jendea. Igandean izango da, 09:00etatik aurrera, Arrapide pasealekuan elkarteak duen eremuan, Bugati erretegiaren parean.



LASARTE-ORIAKO UDALA

Bruneteko zoladura berria

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du Brunet industrialdeko zoladura berri duela abuztuan zehar. Hauek dira Campezo Obras y Servicios SA enpresak egin dituen lanak: zoladura fresatu du, eta nahasketa bituminoso beroko geruza berri bat zabaldu. Obrak abuztuaren 16an hasi ziren, astelehenarekin, eta 27an bukatu.

txintxarri aldizkariak

BANATZAILE lan-poltsa osatu nahi du


ostiraletan herrian aldizkaria banatzeko.

Kotxea edukitzea eta lasarteoriatarra izatea lehenetsiko da.

Deitu edo WhatsApp bidez 688 68 35 10 telefonora edo bidali zure kurrikuluma: txintxarri@ttakun.eus

Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria





2020ko martxotik aurtengo irail hasierara arte herrian zenbatu diren kasuak ekarri ditugu grafiko honetara. TXINTXARRI/FLOURISH

Abuztuan 160 kutsatze atzeman dituzte herrian

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Osakidetzaren datuen arabera, 2020ko martxotik hona 2.099 herritar kutsatu ditu SARS-CoV-2 birusak, Lasarte-Oriako biztanleriaren %11. 24 pertsona zendu dira koronabirusaren eraginez

Txintxarri

Lasarte-Oriatar askok ez bezala, COVID-19ak ez du oporrik hartu abuztuan. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Osakidetzaren datuen arabera, gure herrian 160 positibo atzeman dituzte urteko zortzigarren hilabetean; eguneko, batez beste, bost pasatxo (5,2). SARS-CoV-2 birusaren intzidentzia apalagoa izan da uztailean baino -29 kasu gutxiago detektatu dira abuztuan-, baina iaizko abuztukoa baino altuagoa -113 kasu iaz, eta 47 gehiago aurten-. Amaitu berri den hilabeteko 11. eta 13. egunetan diagnostikatu ziren kutsatze gehien, hamabina.

Mantso bada ere, Lasarte-Orian apaltzen ari da koronabirusaren

intzidentzia, nahiz eta herria gune laranjan dagoen oraindik, 336,05eko tasarekin -irailaren leko datua da, aldizkari honek edizioa itxi aurretik jakin ahal izan duen azkena-.

Herritarren %11 kutsatu da

Datu ofizialen arabera, pandemia lehertu zenetik 2.099 positibo atzeman dira Lasarte-Orian. 19.045 pertsona bizi dira gure herrian, eta beraz, biztanleen %11 kutsatu ditu COVID-19ak. Ia-ia guztiak sendatu dira edo horretan ari dira, baina, tamalez, 24 pertsona zendu dira.

Gaur-gaurkoz, 2020ko azaroa izan da intzidentzia gehieneko hilabetea Lasarte-Orian: 275

positibo erregistratu ziren orduan, eguneko 9,2. 2021eko apirilean (248), 2020ko urrian (215) eta aurtengo urtarrilean (215) ere gainditu da 200 kutsatzen langa.

Eskualdeko udalerrietako intzidentzia tasa metatuei erreparatuz gero, kolore laranja gailentzen da: 300 eta 399 arteko tasak dituzte Andoainek, Hernanik eta Lasarte-Oriak. Usurbilen altuagoa da birusaren transmisioa, gune gorriar dagoelako herri hori. Astigarragan eta Urnietan, aldiz, apalagoa da; bi udalherri horiek eremu horian daude, 60 eta 299 arteko intzidentzia tasa metatuekin.

ezarri dute, eta kanpoalderako, berriz, 1.200 pertsonakoa.

Jarduera ekonomiko, sozial eta kultural guztiak 01:00etan bukatzeko ordutegi-muga bere horretan mantentzea ere erabaki dute.

Maskararen erabilera inguruan zuzenketa bat ere egin du LABIk. Horrela, hondartzetako eta igerilekuetako joan-etorrietan nahitaezkoa izango da maskararen erabilera pertsonen arteko distantzia mantendu ezin bada.

Edukierak handitu ditu LABIk

COVID-19ari aurre egiteko ezarritako hainbat neurri malgutzeko erabakia hartu du LABI batzordeak astelehen goizean. Horrela, irailaren 1etik aurrera, edukiera %60ra handituko dutela iragarri dute, ostalaritzan izan ezik. Sektore horretan edukiera %50ekoa izango da asteazkenetik aurrera (orain arte %35eko zen), eta mahaien inguruan batu

daitezkeen pertsona kopurua, berriz, seitik zortzira igo dute.

Kultur, kirol eta gizarte ekitaldietan gehienez 600 pertsona bildu ahal izango dira ekintza horiek barnealdean diren kasuetan, eta. 800, aldiz, kanpoaldean direnetan. Hori bai, 600 eta 5.000 pertsona arteko edukiera onartuta dagoen esparruetan, barnealdean 800 pertsonako gehieneko edukiera



Gaztelekua barruan dago Lasarte-Oriako KZGunea. TXINTXARRI

Ikastaroak eta zuzeneko hitzaldiak irailean zehar

Herritarrek teknologiaren gaineko ezagutzak sakondu ditzakete Sasoeta auzoko KZGunean

Txintxarri

Ikasturte berria hastearekin batera, zentro ugari ikastaroak burutzeko eskaintzak luzatu dizkiete herritarrei. Esate baterako, KZGuneak. Irailean zehar teknologia berriekin lotura duten saio ugari egin ditzakete lasarteoriatarrek, aurrez aurre edo bideokonferentzia bidez. Orotara, hamar alor jorratuko ditu KZGuneak hilabete zehar, eta 44 ikastaro eskainiko ditu. Horietatik gehienak gaztelaniaz izango dira, 36, eta euskaraz beste seiak. Ikastaro gehienak pare bat egunetan egiteko modukoak dira, lau ordukoak.

Administrazio digitala; aisia eta entretenimendua; enplegu bilaketa; irudia eta bideoa; komunikazioa; ofimatika; oinarriko formakuntza; produktibitatea; sare sozialak; eta segurtasuna. Hamar alor horien gainekoak izango dira KZGuneak irailean zehar eskainiko dituen saioak. Izena eman nahi duten herritarrei honako gomendio hau egin diete antolatzaileek: ikastaro bakoitzean libre dauden plazak zenbat diren kontsultatzea. Horretarako, www.kzgunea.eus web atarian sartu beharko dute interesa dutenek, edo Sasoeta auzoko Gaztelekura joan, eta galdetu. Helbidea, hauxe: Jaizkibel plaza, 14. Kontsultaren bat egin nahi izanez gero, 943 02 36 60 telefono zenbakira deitu daiteke, edo tutor.lasarte@kzgunea.net helbide elektronikora idatzi.

Aurrez esan bezala, ikastaro ia guztiak lau ordukoak izango dira, eta bi egun iraungo dute: saio bakoitza bi ordukoak izango da, ordu tarte hauek batean: 09:00etatik 11:00etara, 11:00etatik 13:00era, 16:00etatik 18:00etara edo 18:00etatik 20:00etara.

Zuzeneko hitzaldiak

Ikastaroez gain, KZGuneak zuzeneko zenbait hitzaldi eskainiko ditu hilabete honetan zehar, euskaraz zein gaztelaniaz, haren YouTubeko kanalaren bidez (<https://www.youtube.com/user/KZGuneaTICvideo/videos>). Solasaldiek 30 minutu iraungo dituzte eta horiek ikusi eta entzun nahi dituztenek ez dute izenik eman behar. Aski izango da lehen aipatutako kanal horretara konektatzea.

Irailaren 7an eta 9an *Ezagutu testuen ortografia berrikusteko aplikaziorik onenak* solasaldia eskainiko du KZGuneak, 12:00etatik 12:30era. Lehen saioa euskaraz izango da, eta erdaraz bigarrena. Astebete beranduago, hilaren 14an eta 16an, *Zer dira kriptotxanponak eta zertarako erabiltzen dira?* hitzaldia izango da, 19:00etatik 19:30era. Irailaren 21ean eta 23an eduki interaktiboa sortzeko doako tresna onenen gainean solastuko dira, 12:00etatik 12:30era. Hilabetea bukatzeko, munduko txoko ugari etxetik mugitu gabe ezagutzeko parada izango dute herritarrek, irailaren 28an eta 30ean eskainiko den solasaldian. 19:00etan hasiko da, eta 19:30ean bukatu.

Biltegiko stockaren eskaintza zabala herrian

Aterpea merkatarien elkarteak, udalarekin elkarlanean, Stock Azoka antolatu du irailari hasiera emateko. Herriko hamabost establezimendu ari dira parte hartzen egitasmoan. Irailaren 2an hasi eta irailaren 4an amaituko da, larunbatarekin

Txintxarri

Udazkeneko denboraldi berriaren atarian, herriko komertzio eta dendek biltegian duten orain arteko materiala salduko dute asteon; irailaren 2an hasi zen eta irailaren 4an bukatuko da, larunbatarekin. Stock Azoka antolatu dute Aterpea elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean, eta hamabost establezimenduk parte hartuko dute aurtengo edizioan.

COVID-19ak eragindako osasun krisia medio, aurten ere, iaz bezala, ez dute karparik jarriko denden kanpoaldean. Horrela, produktuak barruan erosi ahaliko dituzte herritarrek; hala zehaztu du Aterpeako lehendakari Miguel Angel Prietok.

Abuztuaren 30ean aurkeztu zuten egitasmoa Mabel arropa dendaren atarian, eta ekitaldi hori baliatu zuten Aterpea merkatarien elkarteak eta udalak lasarteoriatarrei azokan parte hartzera deitzeko.

Komertzioekin hizketan

Stock Azokan bezeroen eskura jarriko dituzten eskaintzen inguruan jakiteko, Mauxa mertzeriarekin, Ana Ileapaindegiarekin eta Alba Moda arropa-dendarekin hitz egin du TXINTXARRI-k.

Mauxa mertzeriako jabe Maria Luisak aurreratu du pijamak eta gizonezkoen

kaleko zenbait arropa jarriko dituela eskaintzan. Biltegian dituen produktuak saltzeko aukera ona izatea espero duela kontatu du: "Urte eta erdi zaila pasatzen ari gara, eta espero dut jendeak stock azokara gerturatu eta eskaintzak erosiko dituela".

Ana ilepainenegiko Ana jabeak, berriz, ilerako produktuen eskaintza egingo du azokan. Jakinarazi du eguneroko produktuek %20 eta %30eko deskontua izango dutela. Stock Azoka baliatu nahi du ilepainenegian produktuak ere saltzen dituela jakinarazteko: "Bezero asko harritu egiten dira ilerako produktuak ditudala ikusten dutenean, eta, hain zuzen ere, hori jakinarazi nahi diet herritarrei, produktuak ere saltzen ditudala". Aurreratu du baita ere ikasturte berriaren hasierarekin bat eginik, zorriei aurkako produktuen eskaintza ere egingo duela.

Alba Moda arropa dendako Yolanda ere bere eskaintzen berri eman du. "Soinekoren bat, jertseak eta txaketaren bat eskainiko dut stock azokan, baita neguko zenbait jantzi ere".

Esperantza du herritarrek animatuko direla stock azokako eskaintzak erostera, baina, ezkor ere agertu da, azken bi urteetako egitasmo berean "jende gutxi" ibili dela oso gogoan baitu, eta horrek kezka sortzen dio.



Aterpea merkatarien elkarteko hainbat kide, asteleh eguerdian Stock Azokaren aurkezpen ekitaldian. TXINTXARRI

Lasarte - Oria 2021

stock

azoka

Irailaren 2tik 4era

Dendetan bertan

PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA

MABEL MODA

DECO 75 TEXTIL HOGAR

ARTESANÍA INÉS FLORES

MERCERÍA OLMÍ

BAZAR ABREU

URRUZOLA MERTZERIA

TEJIDOS FERNÁNDEZ EHUNAK

ALBA MODA

IMAGINE JANTZI DENDA

CALZADOS LEDER

ELECTRICIDAD ARREGUI

ZAPATERÍA ITURBE

MERCERÍA MAUXA

DULCE TENTACIÓN

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO

Euskadi, azalena, bien común
EUSKO JAKINTZARITZA
GOBIERNO VASCO
EUSKAL MERKATUEN
ERAKUNTZA
DEPARTAMENTO DE FURNIA,
COMERCIO Y CONSUMO

aterpea

Ttakun
30 urte

EGIN ZAITEZ BAZKIDE! 54€ urtean

Euskara eta kultura bidelagun!

zuk
54€
urtean
ordaindu

guk
Euskara eta
kultura
sustatuko
dugu

Errenta
aitorpenean
%20ko
kenkaria
izango duzu



Datuak bete eta utzi Ttakuneko bulegoko postontzian
On-line egiteko: www.txintxarri.eus/bazkidetu

Izen-abizenak: _____

NAN: _____ Jaiotze data: _____


Helbidea: _____ Herria: _____

Telefonoak: _____

e-maila: _____

Kontu korrontea (IBAN): _____

Data eta Sinadura



Ttakun Kultur Elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailez

Bidali postaz edo utzi bulegoan:
Geltoki kalea 4, behea 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:
www.txintxarri.eus/bazkidetu

Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu: kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkideez irauten duen bitartean edota betebeharrak legalak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonen eskainiko betebeharrak legala dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea. TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektronikoki bat bidaliz datubabesa@ttakun.eus helbidera.

Informazioa eta bazkideztzak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48

Emaiazu buelta bat zure munduari euskararekin 2021-22



ONDO iBiLi!

BEKA matrikularen arte %85a

AGENTZIAK

Bidaia ezazu zuzenean herriko agentzia batekin, ziurtasun osoz.

ABIAPUNTUA

Zu zeu eta zure errealitate linguistikoa.

IBILBIDEAK

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatetakoak.
 - Maila guztiak.
 - Ordutegi zabala.
 - Txandaka aritzeko aukera...
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

Udaleko euskaltea

- Helbidea: Bekokale bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltea@lasarte-oria.eus
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 22ra

Munteri-AEK euskaltea

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 607 625 233
- e-maila: lasarte@aek.eus
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 24ra

GELDIALDIAK

- Haurrekin hitz egitea...
- Gauza laburrak idaztea...
- Titulu bat eskuratzea: B1, B2, C1, C2
- Lagunekin, lankideekin, familiakoekin euskaraz aritzea...
- Euskarazko kultura, esperientziak, jarduerak hobeto ulertzea, parte hartzea, parte izatea...

HELMUGA

Zeuk aukeratzen duzuna.

ONDO iBiLi!

Abia zaitez amesten duzun txokorantz

BALDINTZAK

- Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egina izatea:
 - 1- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
 - 2- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
 - 3- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
- Gutxienez % 85eko asistentzia eta gutxienerako aprobetxamendua gainditua.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.eus




Bidaia aseguru barne



Sarea

Arrain honek mugimendu jakin batzuk egin behar ditu laukiz lauki, sarean harrapatuta ez gelditzeko: hiru aurrera, bi behera, hiru aurrera, bi behera... horrela etengabe joan beharra dauka, irteerara iritsi arte. Baina nondik hasiko da? Zein zirrikitutatik joan beharko du? Lau dituzu aukeran.



MARIPURTZIL!
POZIK ITZULI
ZARA ESKOLARA,
EZTA?



Sudokua

Bai, haserre dago, baina lasai, berehala ahaztuko zaio. Bete ezazu sudokua, ESKOLA hitza osatzen duten hizkien bidez (E, S, K, O, L eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Zaku Lasterketa

Lehen iruditik bigarrenera

bospasei segundoko aldea besterik ez dago, baina tarte horretan gauza asko aldatu dira, ezta? Horrez gain, elementu bat desagertu da eta elementu berri bat ere agertu da. Ikusten al dituzu?



Mezu gordeak


Erabili marrazkitxoen alfabetoa eta pertsonaia bakoitzak zer dioen jakingo duzu. Esaldi horietako bat esaera zahar bat da, zein da?

- 1 _____
- 2 _____
- 3 _____
- 4 _____

| ALFABETOA | | | | | | | | | | | | |
|-----------|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|--|
| A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | |
| M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | |
| Y | Z | . | : | , | ! | ? | " | + | = | % | | |

Hamabostekoa

Bai ederrak garai bateko hilarriak. Irudi honetan, ezkerre eta eskuine ez dira erabat simetrikoak. Bila itzazu bien artean dauden aldeak. Hamabost dira guztira.





Donostia Arraun Lagunak eskifaiaiko kideak, Euskotren Ligako garaipena ospatzen. EUSKOTREN LIGA/ A. ARRIZABALAGA

Euskotren Ligako bandera ere poltsikora

Aiora Belartietia, Paula Gonzalez eta Izar agirretxe kide dituen Lugañenek lehenengoz irabazi du Liga. Intza Fernandez herritarrak eta Hondarribia Bertako Igogailuak taldeak Euskotren Ligan mantentzeko kanporaketa jokatu behar du

Txintxarri

Denboraldi paregabea egiten ari da Donostia Arraun Lagunak taldea. Gipuzkoako zein Euskadiko Txapelketetako banderak lortu ostean, Euskotren Ligako bandera ere gehitu dute euren urteko garaipen zerrendara.

Ez da erraza izan. Lugañene eta Orio Orialki ontzien arteko lehia handia izan da liga hasieratik eta azken egunera arte zirrara handia izan da.

Zarautzeko XIII. Ikurriñeko bi jardunaldiek eman zion amaiera abuztuaren 14an eta 15ean.

Donostia Arraun Lagunak iritsi zen bertara sailkapeneko buru, uztailaren 31ean eta abuztuaren 1ean Bilbon eta Santurtzin banderak eskuratu ostean.

Orio Orialkik, ordea, ez zuen erraz amore emango, eta argi geratu zen lehen jardunaldian.

Mirotzek bederatzi segundo atera zizkioten Lugañeneri helmugan eta bigarren jardunaldiari begira, puntu baliagarriak eskuratu zituen sailkapenean.

Era horretara, Donostia Arraun Lagunak puntu bakarreko abantailarekin egin zion aurre azken jardunaldiari; Donostia Arraun Lagunak, 36 puntu eta Orio Orialkik, 35.

Puntu berdinketa

Bigarren jardunaldian ere talde horia izan zen nagusi. Aiora Belartietia herritarra tostan zuen Lugañene bigarren izan zen.

Ondorioz, bi taldeen arteko berdinketa eman zen sailkapenean, 39 puntu Donostiarrek Ligan erdietsitako sei banderek, ordea, garaipena eman zioten Lugañeneri eta lehenengoz Euskotren Ligako bandera jaso zuen taldeak.

Sailkatzeko lehia

Nahiz eta ederki lehiatu, Hondarribia Bertako Igogailuak aurten ere laugarren postuan amaitu du Liga.

Intza Fernandez herritarrak eta bere kideek hainbat estropadetan hirugarren postua lortu arren, 18 puntu eskuratu ditu. Bere lehiakide zuzen Donostiarra Lacturalek, berriz, 24 puntu.

Ondorioz, sailkapeneko azken izan da eta Euskotren Ligan mantentzeko lehiatu beharko da, irailaren 18an eta 19an, Bermeo eta Portugaleten. Azken hiru urteetan egin behar izan die talde berdeak aurre kanporaketa jardunaldiei eta

hirurak gaintitu ditu. Aurten ere horrela izatea espero dute.

Atsedetik ez

Nahiz eta liga ofizialki amaitu, herritarren taldeek ez dute atsedetik hartu azken asteburuetan.

Uztailaren 22an, XIII. Txingudiko Bandera ONDOAN Sari Nagusia jokatu zen, Hondarribian. Euskotren Ligako ontzien arteko azken lehia izan zen eta Lugañeneko eskifaia indartsu dagoela erakutsi zuen, bandera Donostiara eramanez. Uztailaren 29an, berriz, Hondarribia Bertako Igogailuak Abuztua Donostia Banderan parte hartu zuen. Urumeako ibaian jokaturako erlojupekoan bigarren postuan sailkatu zen ontzia Donostiarra Lacturaleren atzetik.

Laugarren, KAE 1ean

Euskotren Liga ez ezik, KAE mailakok ligak ere amaitu dira eta bertan Gaizka Ormazabal herritarra izan dugu lehian estropada batzuetan San Pedroko tostan.

Abuztuaren 22an jokatu zen azken jardunaldia Bilbon. Kaikuk lortu zuen Bilboko Hiria bandera eta San Pedrok zazpigarren postua erdietsi zuen. Sailkapen nagusian, berriz, Getaria izan da garaile. Libiak, berriz, laugarren postuan amaitu du denboraldia.

Sailkapen honek ez dio Ormazabal kide duen talde moreari Eusko Label Ligarako igotzeko sailkapen jardunaldietan borrokatzeko aukerarik emango; hurrengo urtean KAE1 mailan jarraituko du lehian, beraz.

Kontxako banderako lehia hasi da

Iritsi da arraunlarien hitzordurik garrantzitsuenak. Irailaren 5ean eta 12an Kontxako bandera jokatu da eta aurrekari gisa, irailaren 1ean eta 2an, 43 ontzi izan ziren lehian Donostiako uretan sailkapena lortzeko.

Emakumeen Banderaren XIV. edizioa hobei talde lehiatu ziren, irailaren 1ean, horien artean, Donostia Arraun Lagunak eta Hondarribia Bertako Igogailuak.

Lehiatzeko, hamarreko bi multzotan banatu zituzten ontziak eta Donostiako, zein Hondarribiko taldeak A multzoan egon ziren. Arerioak Cabo, Perillo, Chapela, Zumaia, Deusto, Hibaika, Orio Orialki eta Tolosaldea izan ziren.

Zazpi traineruk bakarrik lortuko zuten txartela banderagatik lehiatzeko, Donostiarra zuzenean sailkatua baitago.

Erakustaldia

Euria eta haizea iragarria bazegoen ere, bigarrenak sortzen zituen olatuei bakarrik egon behar izan zieten aurre eskifaiek.

Erlojupeko modura jokatu zen jardunaldian, pixkanaka atera ziren ontziak. Hondarribia Bertako Igogailuak ureratsen hirugarrena izan zen eta Donostia Arraun Lagunak seigarrena.

Nahiz eta arerio zuzenen erreferentziarik ez izan, bi taldeek euren onena eman eta

krono baliagarriak egin zituzten sailkapen nagusirako; Donostia Arraun Lagunak taldeak sailkapen proba irabazi zuen eta talde berdeak hirugarren denbora onena egin zuen.

Are gehiago, Lugañenek indartsu dagoela erakutsi zuen; Orio Orialkik ia bederatzi segundo gehiago behar izan zituen helmugara iristeko.

Herriko arraunlariak dituzten bi taldeez gain, Orio, Tolosaldea, Deusto, Hibaika eta ezustekoa eman zuen Chapela galiziarra izango dira Kontxako lehen jardunaldian.

Sailkapen estropadaren ostean, igandeko txandan zozketa egin zuten. Hondarribia Bertako Igogailuak eta Donostia Arraun Lagunak bigarren txandan lehiatuko dira Hibaika eta Chapela arerio dituztela. Lehen

txandan, berriz, Orio, Donostiarra Lacturale, Tolosaldea eta Deusto izango dira.

Gizonezko lehian, aldiz, Ormazabal kide duen San Pedro B multzoan partehartu zuen ostegun arratsaldean, irailaren 2an. Aldizkariko edizio itxi baino lehen ezin izan genuen emaitzarik lortu.

Ikusle kopuru mugatua

Igandean, irailaren 5ean 10:00etan hasiko da Kontxako banderako lehen jardunaldia.

Kontxako hondartza eta portu aldean edukiera mugatua izaki, sarrerak eskuratu dituzten zaletuek bakarrik izango dute aukera zuzenean ikusteko. Sarrerarik lortu ez dutenei Donostira ez joateko eta proba etxetik jarraitzeko deia egin diete antolatzaileek.

Futbol denboraldiari hasiera emateko prest

Real Sociedad eta Alaves Gloriosas taldeek igandean, irailaren 5ean, jokatuko dute Ellas Ligako lehen partida. Valentzia eta Betis izango dituzte aurrez aurre, hurrenez hurren. I. Nazional mailako Añorga KKEk ere denboraldiko lehen jardunaldia izango du

Txintxarri

Duela hiru aste Santander eta SmartBank ligen hasiera izan bazen ere, Ellas Ligak irailaren 4an eta 5ean jokatuko du lehen jardunaldia. Real Sociedad zein Alaves Gloriosas taldeetan izango dira lehen herritarrak aurtengo denboraldian, Iraia Iparragirre Argandoña eta Irati Urruzola Bermudez defentsek, hurrenez hurren.

Bi taldeek igandean eta etxean emango diote hasiera izen berria duen Ligari. Eguerdian Alavesek maila gorenean egingo du debuta eta Betisen aurka neurtuko ditu indarrak, Ibaia zelaian.

Realak, berriz, Valentzia izango du lehen arerio Zubietan, 16:00etatik aurrera.

Fitxaketa ugari

Fitxaketei dagokionez, bi taldeek denboraldi-aurre mugitua izan dute. Nazioarteko, zein estatuko jokalariek gehitu dituzte euren jokalaritza taldeari.



Irati Urruzola Bermudez, Osasunaren aurkako lagunartekoan. ALAVES GLORIOSAS

Alaveseko entrenatzaile Mikel Crespok taldea indartu nahi izan du lehen mailan lehiatu ahal izateko.

Taldea osatu eta prestatzeko, berriz, maila ezberdinetako taldeekin zortzi lagunarteko jokatu ditu Gasteizko taldeak, EH kopako bi partidak barne.

Laurus, Parquesol, Pradejon, Racing, DUX Logroño, Real Sociedad, Osasuna eta Athletic izan dira aurkariak. Sei partida irabazi, bat berdindu eta bat galdu ostean, itxura ona eman du taldeak.

Ilusioz aurre egiten diote abentura berriari eta Ligan ere

maila bera mantentzea espero du Alaves Gloriosas taldeak.

Realak, berriz, hamar jokalariren agurrari aurre egin eta errefortzuak bilatu behar izan ditu.

Talde txuri-urdinak, ordea, ez du hainbeste hitzordurik izan denboraldia prestatzeko. Leongo Leche de Gata txapelketan, San Agustin trofeoan eta EH Kopan parte hartu du Natalia Arroyok zuzentzen duen taldeak.

Lehen bi txapelketetan garaipena lortu zuen jokatutako hiru partidetan. Real Madrid, Madrid CFF eta Deportivo Abanca izan zituen aurrez aurre.

EH Kopan, berriz, beheko zatiduran irakurri ahalko duzuen moduan, partida bat galdu eta beste bat irabazi zituen Donostiako taldeak.

Horrez gain, talde txuri-urdinak aste honetan jakinarazi du aurtengo kapitainak nortzuk izango diren eta horien artean da Iraia Iparragirre Argandoña herritarra.

Ikusleak

Berrikuntza nagusietako bat, zaleen presentzia izango da.

Neurriak egungo egoerara moldatu ahala, denboraldi-aurreko partida batzuetan ikusleen berotasun eta animoak jaso ahal izan dituzte futbol jokalariek; Ligan ere horrela izango da.

Hala ere, edukiera mugatua denez, partidak ikusteko sarrera

eskuratu beharko da aurrez. Real Sociedad taldeko zein Alaves taldeko webgunean eskuragarri egongo dira etxean jokatzen diren jardunaldien sarrerak.

Añorga KKE

I. Nazional mailan ere asteburu honetan hasiko da baloia zelaian biraka.

Bigarren multzoan, Añorga KKEk Oiartzun izango du arerio lehen jardunaldian. Larunbatean, irailaren 4an, arratsaldeko 17:00etatik aurrera Rezolako zelaian dute hitzordua Gipuzkoako bi taldeek.

Taldearentzat ezagunak diren hainbat arerio izango dituzte 2021-2022 denboraldian, baita berriak ere. Ezagunen artean Real Sociedad B, Bizkerre, Tolosa, Aurrera de Vitoria edo San Ignacio daude; berriei dagokionez, Nueva Montaña, Athletic Club C, zein Racing B edo Osasuna B.

Hurrengo astean

Federatu mailako lehia, berriz, irailaren 11 eta 12ko asteburuan hasiko da. Denboraldi-aurrea amaitzen ari dira, beraz, Lasarte-Oriako Ostadar SKT eta Texas Lasartearra elkarteko taldeak.

Hauek era mailakatuan hasiko dute denboraldia. Zelaian lehiatzen lehenak Ostadar SKTko taldeak izango dira, zehazki, Erregional Gorengo mailako, Jubenilen Ohorezko mailako eta Kadete Ohorezko mailako taldeak.

Añorga KKEk EH kopa altxa du

Alaves Gloriosas eta Añorga KKE taldeek EH Kopako finalak lehiatu zituzten abuztuaren 29an eta Añorgako kideek B multzoko kopa eraman zuten etxera. Real Sociedad taldeak, berriz, maila goreneko hirugarren postua eskuratu zuten.

Añorga KKEk Bizkerreren aurka jokatuz finala. Kanporaketetan Angeluko Isatsak eta San Ignacio garaitu ostean, ezaguna duen Getxoko taldeari aurre egin behar izan zion.

Aretxabaletako Ibarra zelaian partida berdindua ikusi ahal izan zen. Bi taldeek aukerak sortu zituzten arren, 78. minutuan, Añorgako kide Chenoak areaz kanpoko jaurtiketa egin eta atezain getxotarra gainditu zuen.

Ez zen gol gehiagorik izan eta kopa Añorgara joan zen. Ainara Del Olmo herritarra bigarren zatian sartu zen zelaira.

Maila goreneko EH Kopa, berriz, Alaves Gloriosasek Athletic izan zuen aurrez aurre finalean.

Finalerdi gogorrean Realak 3-4 garaitu ostean, talde bizkaitarra izan zuen arerio Zarauzko Asti zelaian jokatuz neurtetan.

Alavesek 0-1 aurreratzea lortu zuen lehen zatiko 8. minutuan, Lice Chamorroren burukadari esker. Bi taldeek saiakerak egin arren, atsedenaldira arte markagailua berdindu mantendu zen.

Athleticek, ordea, buelta eman zion partidari bigarren zatian. Nekanek lehenik eta Azkonak amaitzeko 8. minutu faltan sartutako golek bilbotarren esku utzi zuten saria.

Uztailaren 28an, Oñatiko Azkoagain futbol zelaian, hirugarren postua izan zuten jokoan Real Sociedad eta Eibar taldeek.



Añorga KKEko kideak, B multzoko EH Kopa jaso ostean. CONCHI SANCHEZ FRAL

Realak aurreratu zuen markagailuan Nerea Eizagirre kapitainaren golari esker. Atsedenaldira itzuli eta berehala sartu zuen bigarren talde txuri-urdinak, Elene Vilesek ongi baliatu baitzuen atezainaren aldaratze bat.

Nahiz eta Realak nagusi izan, Eibarrek ahaleginak egin zituen eta esfortzuak fruitu

izan zuen 65. minutuan. Korner batean Ruthek gola egin zuen.

Berdinketa izan zen orduan armaginen helburua. Aukerak sortu zituzten arren, ez zuten zortetik izan eta azkenean 2-1eko emaitzarekin EH Kopako hirugarren postua Realak erdietsi zuen.

Txirrindulariak, lasterketaz lasterketa

Buruntzapi Txirrindularitza Eskolako kideek Iruñea eta Los Arcosen lasterketak irabazi dituzte. Haimar Etxeberria eta Beñat Carbayeda juniorrak nazioarteko lasterketetan ere lehiatu dira Espainiako zein Gipuzkoako selekzioekin

Txintxarri

Errepide denboraldi betean, Buruntzapi txirrindularitza eskolako zein herriko txirrindulariek hitzordu garrantzitsuak izan dituzte; hainbatetan lehen postuetan sailkatu dira.

Uztailaren 28tik 30era, Buruntzapi txirrindularitza eskolako juniorrak eta Viveros San Anton taldean dagoen Ander Altuna herritarrek Iruñeako itzulian lehiatu ziren. Zirrara handiko lehiaketa izan zen eta azkenean, Buruntzapi Beñat Carbayedak lortu zuen sari nagusia eta erregulartasun maillota.

La Morea eta Mutiloa artean jokatu zen Itzuliko lehen lasterketa. Erasoek eta erokiko batek baldintzatutako proban, Carbayedak esprintean hirugarren amaitu zuen.

Bigarren egunean, Ochagavian hasi eta amaitu zen proba eta lehen hiruren artean izan ziren Carbayeda, zein bere taldekide Haimar Etxeberria.

Lasterketan zehar, hainbat eraso izan ziren eta tropelak ederki erantzun zuten. Taldetxoak sortu ziren eta lehenean sartu ziren Buruntzapi kideak. Bost kilometro faltan ordea, Finques Feliu CT taldeko Ignasi Lambea katalanak ihes egin zuen eta bakarrik igaro zuen helmuga.

Hamazazpi segundotara iritsi zen taldetxoa eta esprintean borrokatu zituzten gainerako postuak. Etxeberria bigarren izan zen eta Carbayeda, berriz hirugarren.

Azken etapa zirrara handikoa izan zen. Lasterketa buru Marc Rubirolaren eta Carbayedaren artean lau segundo besterik ez zeuden. Alabaina, ezustekoa eman zuen Donostia Berri taldeko Iñaki Errazquinnek. Hark ere lau segundoko tartea zuen Rubirolarekiko eta sailkapeneko laugarren zen.



Beñat Carbayeda, Iruñeako Itzuliko podiumean. MARTIN EARLY

Helmugarako hogeikilometro faltan, Carbayedak eta Errazquinnek ihes egin zuten tropeletik. Rubiola ez zen arazo izango, atzean geratu baitzen.

Azken metroetan esprintean erabaki zen guztia. Etapa Errazquinnek lortu zuen eta itzulia Carbayedarentzat izan zen.

Buruntzapi kidea pozik zegoen lortutako garaipenarekin. Aste Santuan eroriko bat izan zuen lasterketako esprint batean txirrindulari gazteak. Zauri larriak izan zituen eta hilabetez ezin izan zuen txirringan ibili.

Bestetik, Carbayedak eta Altunak Beasaingo Klasika Premundiala lasterketan parte hartu zuten, abuztuaren 29an.

Carbayedak hamahirugarren postuan igaro zuen helmuga; Altunak, berriz, 36. postuan.

Nazioartean

Nazioartean ere izan dira lehiak Buruntzapi kide Carbayeda eta Etxeberria. Hungarian, Txekiar Errepublikan eta Frantzia junior mailako nazioarteko txapelketetan parte hartzen eta lan ederra egin dute.

Etxeberriak Espainiako selekzioaren deia jaso zuen One Belt One Road Juniors eta Course de la Paix Juniors probetan parte hartzeko.

Hungarian izan zen lehenik Buruntzapi kidea, abuztuaren 20tik 22ra, One Belt One Road Juniors itzulian eta sailkapen orokorrean, 22. postuan amaitu zuen. Aipatzekoa da bigarren etapan, Ibrany-Ibrany, txirrindulari gazteak egindako lana. Bederatzigarren postuan helmugaratu zuen.

Ez zen nazioarteko bidai horretan lehen hamarren artean amaitu zuen lehen etapa izango. Abuztuaren 26an Txekiar Errepublikan zen txirrindulari gaztea. Bertan Course de la Paix Juniors proban lehiatu eta bi etapatan ere aurrean izan zen Etxeberria.

BURUNTZAPIKO ENEKO ARANGUREN KADETEAK LOS ARCOSEN GARAIPENA ERDIETSI ZUEN

Pistan, Espainiako onenen artean

Abuztuaren 3tik 8ra, Espainiako pista txapelketa jokatu zen Galapagarren, Madrilan. Bertan bildu ziren modalitate honetako open, junior, zein kadete mailako Espainiako hoberenak eta Lasarte-Oriak izan zuen bere ordezkaritza, Eibar Txirrindulari taldean dagoen Asier Pozo herritarra.

Euskadiko selekzioak hautatu zuen herritarra bakarkako jazarpen, kanporaketa, puntuazio eta scratch probetan parte hartzeko.

Jazarpen proba lehiatu zuen abuztuaren 3an eta bederatzigarren postuan sailkatu zen.

Abuztuaren 4an, bi probetan izan zen herritarra. Scratchean zail izan zuen lehen postuetan egoteko. Izan ere, bost arerioko talde batek ihes egin eta itzuli bat atera baitzien gainerako parte-hartzaileei. Hamalagarren postuan sailkatu zen. Kanporaketa proban ere, postu bera lortu zuen.

Abuztuaren 5ean, azken proba egin zuen Pozok, puntuazioa. Erritmo gogorra ezarri zen hasieratik eta eraso ugari izan ziren lasterketan zehar. Pozok, ordea, ezin izan zuen erritmoa jarraitu eta proba utzi behar izan zuen.



Asier Pozo, Espainiako txapelketan.

EIBAR TXIRRINDULARI TALDEA

Bosgarren etapan, Štetí-Štetí, buruko taldean egon zen Buruntzapi txirrindularitza eta esprinta lehiatu zuen. Helmugan bosgarren izan zen.

Eta lasterketako azken jardunaldian, zortzigarren izan zen. Lauko talde batek ihes egin eta atzetik zetorren taldean zegoen Etxeberria. Bosgarren postuarengatik borrokatu zen esprintean eta zortzigarren postuarekin konformatu behar izan zuen Buruntzapi kidea. Itzuliko sailkapen orokorrean, berriz, 32. postuan sailkatu zen.

Carbayedak Ronde des Vallées Juniors eta Ribera del Dueroko itzulia lehiatu ditu Gipuzkoako selekzioarekin.

Bretania, Frantzia, jokatu zen Ronde des Vallées Juniors proba, abuztuaren 14an eta 15ean. Bi lasterketa eta erlojupeko batez osatutako itzulia 44. postuan amaitu zuen Carbayedak.

Burgos, Valladolid, Soria eta Segovia zeharkatu zituen Ribera del Dueroko itzulian kendu zuen arantza herritarrek.

Abuztuaren 19an, taldeko erlojupeko probak eman zion

hasiera probari. Nahiz eta Gipuzkoako selekzioak hemeretzigarren amaitu, hurrengo hiru jardunaldietan Carbayedak lehen hamarren artean egotea lortu zuen; bosgarren, laugarren eta seigarren sailkatu zuen, hurrenez hurren eta horrek sailkapen orokorreko zortzigarren postura eraman zuen.

Garaipena, Los Arcosen

Kadete mailan, berriz, aipatzekoa da Eneko Arangurennek Los Arcosen lortutako garaipena.

Abuztuaren zehar, Nafarroako Txirrindulari elkarteak antolatutako hainbat probetan lehiatu da Aranguren Adur Tapia taldekidearekin batera. Eta abuztuaren 16an, jokatu zen Los Arcos hiriko trofeoan saria lortu zuen Arangurennek. Bosteko batek ihesi egin eta esprintean gailendu zuen Buruntzapi txirrindularia.

Afizionatuei dagokionez, Euskaldun trofeoeko Euskal Bailarako kriteriumean, zein Helduz txapelketako lasterketetan parte hartu du Eibar txirrindulari taldeko kide Asier Pozok.

Adin guztietarako kirol-jarduerak kiroldegian

Lasarte-Oriako Udal Zerbitzuak Maialen Chourraut kiroldegian eskaintzen dituen ikastaro luze eta motzen aurkezpena egin du. Neurri berriak direla eta, pandemiak bertan behera utzitako egitasmoak berreskuratu nahi dituzte ikasturte honetan

Txintxarri

Berrikuntza nabarmenik gabe aurkeztu ditu Udal Kirol zerbitzuak 2021-2022 ikasturteko ikastaroak. Lasarte-Oriako alkatea Agustin Valdivia eta Txus Alonso kirol zinegotziak heldu, gazte, zein haurrek egin ahalko dituzten kirol jardueren berri eman dute.

Kirol zerbitzuko erabiltzaile, zein herritarrek urte osoko zein hilabetekako kirol ikastaroak aukeratu ditzakete.

Udal arduradunek azaldu dutenez, urte osoko helduen eskaintza ikastaro berri bat izango da. Ohiko zumba, indoor txirrindularitza, pilates, aquagym edo bodypump saioez gain, kiroldegiko erabiltzaileek Kardiofit ikastaroa egiteko aukera izango dute ikasturte honetan.

Haurrei dagokionez, iraupen luzeko jarduerak kirol ludoteka, igeriketa teknifikazioa eta txiki zumba dira.

Hilabetekako jarduerak, berriz, haur, zein helduentzako igeriketa ikastaroak dira, baita haurtxoekin egiten diren ur jarduerak ere. Kirol zinegotziak azaldu duenez, iaz gutxienez kopurua bete ezenez bertan behera geratu behar izan zen azken jardura hau. "Pandemia dela eta, iaz ez zen



Udal ordezkariak kiroldegiko kirol-jarduerak aurkeztu dituzte. TXINTXARRI

talderik sortu; aurten guraso gehiago animatzea espero dugu".

Jardura gehienetan bi saio edo bakarra aukeratzeko aukera dago. Kirol Ludotekan, esate baterako, hiru ere aukeratu daitezke, baina kirol zinegotziak azaldu duenez, "kasu horretan, bi saio lehorrean eta bat igerilekuan edo bi saio igerilekuan eta bat lehorrean egin behar dituzte".

Oniritziaren zain

Ikastaro gehienak ordainpekoak diren arren, bada doakorik ere.

Helduen gimnasioko entrenamendu, zein aholkularitza zerbitzua; nagusien parkeko erabilera aholkularitza; igeriketa gidatua eta luzaketa saioak.

Horien barruan, sartzen dira *Ondo ibili* ibilaldi osasuntsuak. Kirol batzordeburu Txus Alonsok azaldukoaren arabera, "iaz ez genuen jardura egin. Inguruko herri batzuk martxan jarri zuten eta jardura modu egokian gauzatu dute. Guk eskaintza egin dugu, baina Osakidetzaren oniritziaren zain gaude. Onartuz gero, indarrean dauden neurriak

Neguko ordutegia martxan da

Iraila hastearrekin batera, Lasarte-Oriako udal kirol instalazioek ohiko neguko ordutegia berreskuratu dute.

Maialen Chourraut kiroldegia astean zehar 7:00etan irekiko ditu ateak eta 22:30ean amaituko da jarduna. Larunbatetan, berriz, ordutegia 9:00etatik 20:00etara izango da eta igandeetan eta jai egunetan, goizez bakarrik izango da martxan, 9:00etatik 13:00etara.

Igerilekuan kirol egin nahi duten herritarrek, ordea, beste ordutegi bat izan behar dute kontuan. Astelehenean ostiralera, 7:00etatik 12:30era eta 14:00etatik 21:30era egongo da erabilgarri instalakuntza. Larunbatetako ordutegia 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara da; igande eta jai egunetan, kiroldegia irekita dagoen bitartean erabili ahalko da.

Mitxelingo kirol guneari dagokionez, astean zehar arratsaldez soilik egongo da irekia, 15:30tik 22:30era. Larunbatetan egun osoz egongo da martxan, 9:00etatik 20:00etara. Igande eta jai egunetan, aldiz, goizez bakarrik sartu ahalko da instalakuntzetara, 9:00etatik 13:00etara.

Ordutegi hau 2022ko ekainaren 30ra arte egongo da indarrean. Orduan, udako ordutegia ezarriko da.

jarraituz egingo litzateke jardura".

Sustapena

Pandemiaren eraginez, bertan behera geratu zen beste ekintzetako bat haurrei zuzendutako kirol jardueren sustapena izan zen.

"Neurri berriek haurren kirol jardura onartzen dute. Beraz, ekimenarekin aurrera egitea espero dugu eta hilabetero larunbatetan zenbait saio egin ahal izatea", adierazi du Alonsok.

Saioak eta plazak

Iraupen luzeko saioak irailaren 20an hasi eta ekainaren 17an amaituko dira. Iraupen motzeko Ek, berriz, hiru hilabeteko iraupena izango dute haurren kasuan, eta helduei dagokionez, hilabete batekoak, bikoak edo hirukoak.

Plaza kopuruari dagokionez, ikastaroaren arabera gehieneko eta gutxienezko zenbatekoa zehaztu da. Ikasle gehien izan ditzaketen saioek hemezortzi kide izango dituzte eta gutxienezko 11koa izango da.

Izena ematea

Ikastaro luze, zein motzen izena ematea Maialen Chourraut kiroldegiko bulegoan egingo da. Bulego ordutegia astelehenean ostiralera, 09:00etatik 13:00etara da. Asteazkenetan arratsaldez ere egin daiteke, 17:00etatik 19:00etara.

Azkenik, ordainpeko ikastaroen kasuan, ikastaroetako erabiltzaileek zatikako ordainketa egiteko aukera dutela nabarmendu du kirol zinegotziak. "Aukera hori hartuz gero, irailaren %60a ordaintzen da eta urtarrilean gainerako kopurua".

Abuztuari amaiera emateko, Huesca eta Lezaman trailak

Lasarte-Oria Trail Mendi elkarteko kideak Lezamako Mugak eta Tena bailarako VI. Trailean izan dira lehian

Txintxarri

Abuztua opor garaia izanda ere, herriko Lasarte-Oria Trail Mendi elkarteko kideek ez dute atsedenik eta proba ezberdinetan parte hartu dute abuztuko azken asteburuan. Batzuk Huescan izan

dira Tenako bailarako VI. Trailean lehian; besteak Bizkaia aldean, Lezamako Mugetatik trailean. Guztiek amaitu zituzten euren probak postu ederrak eskuratuz.

Huescako Tena ibarrean barrena ibili ziren Mertxe Casas

Sanchez eta Ines Aguado Blanco kideak.

Ines Aguado Blancok 4K proban parte hartu zuen. 42 kilometroko eta 3.500 metroko desnibel positiboko ibilbidea 11:01:38.01 egin zuen. Ondorioz, emakumeen mailan 11. postuan amaitu zuen lasterketa eta beterano mailan, bosgarren izan zen.

10 kilometrotako 1K proban parte hartu zuen, berriz, Mertxe Casas Sanchezek. Lehen aldia zen horrelako lasterketa batean parte hartzen zuena eta ederki




Aguado Blanco, K4a egiten. LOTME

egin zion aurre probari. 1:42:19.11 denbora eginez, beterano mailako zazpigarren sailkatu zen.

25 kilometrotako ibilbidea, Basobaltz basoa, Gangurenko igoera eta Ugarteko jaitziera barne, guztira 1.100 metroko desnibel positiboa. Hori izan zen LOTMEko David Garcia Romerok abuztuaren 29an Lezamako Mugetatik trailean gaintu beharreko zailtasuna. Herritarrek 22. postuan amaitu zuen proba, bi ordu eta zazpi minututan.

ZORION AGURRAK



Ibai eta Araia
Zorionak Ibai eta Araia!!! Zuen eguna ederki ospatu genuen!! Muxu erraldoiak!




Inigo eta Kizkitza
Tan tan tatan... Azkenean iritsi da hainbeste itxaron dugun eguna! Ze poza! Egun zoragarria igaro dezagula elkarrekin, eta zoriontsu izaten jarrai dezaguela! Zorionak, bikote!




Malen
Zorionak Malen! Jada 4 urtetxo!! Muxu asko Maddi, amatxo eta aitabakoren partez.


EGURALDIA LASARTE-ORIAN




Larunbata, 4




Igandea, 5




Astelehena, 6




Asteartea, 7



Asteazkena, 8



Osteguna, 9



AZOKA TXIKIA

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Garaje marra alokatzen da Golf plazan, Landaberri-Garaiakoetxea ikastolaren frentean. Zabala, sarbide erraza, ekonomikoa. Harremanetarako zenbakia, 634 27 81 98. Harremanetarako zenbakia, 659 02 19 45.

LANA

ESKARIA

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaletan gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 634 27 81 98. Ikasturte berri honetan haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik. 630 68 27 16.

SALEROSKETA

SALDU

Paseorako bi txirrinda saltzen ditut, 100 eurotan biak. Harremanetarako zenbakia, 670 60 74 95. Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia.

Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 200 euro. 646 824 466.

Bizikletari lotzeko erremolke doble salgai. Interesik bazenu deitu lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. Harremanetarako zenbakia, 670 20 78 14, Amaia.

SUDOKUA

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 6 | | 2 | | 9 | 1 |
| | | 8 | | 4 | 6 | 2 |
| 1 | | 2 | 6 | | | 5 |
| | | 7 | 3 | | | 8 |
| 3 | 8 | | | 2 | | |
| | 5 | 1 | 8 | | 9 | 4 |
| 7 | | | 4 | 8 | | 6 |
| | | 3 | 7 | | | 4 |
| | 4 | 6 | | | 5 | 1 |
| | | | | | 5 | 1 |
| | 4 | 6 | | | 5 | 1 |

OHARRA

Ostadar Ipar Martxa irailaren 8an hasiko da lanean, asteazkenarekin

Ikasturte berria ekiteko irrikaz daude Ostadar Ipar Martxako kideak. Jakinarazi dute entrenamendu saioak irailaren 8an hasiko direla, eta kurtsuan zehar asteazkenetan (19:00etan) eta ostegunetan (10:00etan) ariko direla. Herritarren bat kirol hori egitera animatuz gero, Ostadar SKTren bulegora deitu behar du, telefono zenbaki honetara: 943 36 04 33.

Ate irekien jardunaldiak antolatu ditu Beltzak RT errugbi eskolak

Lasarte-Oriako gaztetxoei errugbia ezagutzeko aukera eman nahi die Beltzak RTk, eta horretarako, ate irekien jardunaldiak antolatu ditu irailaren 10, 17 eta 24rako, ostiralarekin. 18:00etan hasiko dira, eta 10 (2012an eta 2013an jaiotakoak), 12 (2010-2011) zein 14 urtez azpikoei (2008 eta 2009) zuzendutakoak izango dira. Harremanetarako: 666 32 10 59.

GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | |
|---------------|-----------------|---|
| OSTIRALA, 3 | GIL | EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-22:00 |
| LARUNBATA, 4 | GANDARIAS-URIBE | DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52 |
| IGANDEA, 5 | GANDARIAS-URIBE | ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49 |
| ASTELEHENA, 6 | ACHA-ORBEA | DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51 |
| ASTEARTEA, 7 | URBISTONDO | LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74 |
| AZTEAZKENA, 8 | GANDARIAS-URIBE | GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29 |
| OSTEGUNA, 9 | DE ORUE | URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67 |
| | | GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21 |

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

URTE OSOKO GUARDIAK APP-A eskuragarri app store edo android marketen

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com orrialdean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINTEA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Inigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galarzi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzzaileak

Julene Iraola, Uxue Odriozola, Lide
Hidalgo, Egoitz Epelde, Sergio
Hernandez, Igone Mendizabal, Olatz
Bardaji eta Inigo Garcia.

Informatika zerbitzua

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 3

URNIETA Kale antzerkia

Dantzaz Konpainiak *Basoa* izeneko dantza erakustaldia eskainiko du. Milaka pertsonak gerrengatik eta pobreziazatik jasan behar dituzten egoerei buruzko hausnarketa egingo du dantza konpainiak, mezu poetikoa zabalduz.

Blas de Otero plaza, 19:00etan.

DONOSTIA Liburu azoka

Hainbat argitaletzek, liburu dende eta banatzaileek liburu zahar eta okasiozkoak salduko dituzte.

Gipuzkoa plaza, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

LARUNBATA 4

USURBIL Irteera gidatua

Donostialdea Turismoak doako irteera gidatuak antolatu ditu Beterri-Buruntza eskualdea ezagutzeko. Oraingoan, Usurbilen egingo dute *Urdaiaga ezagutzen* irteera. Gehienez hamabost laguneko taldea osatu daiteke, hortaz, parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman beharko dutela jakinarazi dute antolatzaileek. Honako helbidea eta telefono zenbakia erabili daitezke



LASARTE-ORIA Stock Azoka Udazkeneko denboraldi berriaren atarian, herriko komertzio eta dende biltegian duten orain arteko materiala salduko dute irailaren 2tik 4ra, ostegunetik larunbatera. Stock Azoka antolatu dute Aterpea elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean, eta hamabost establezimenduk parte hartuko dute aurtengo edizioan. COVID-19ak eragindako osasun krisia medio, aurten ere, iaz bezala, ez dute karparik jarriko denden kanpoaldean.

Lasarte-Orian, irailaren 2tik 4ra, egun osoan zehar.

horretarako: donostialdea@behemendi.eus edo 656 705 243. Urdaiaga auzoa, 09:30ean.

ANDOAIN Antzerkia

Yarleku konpainia nafarraren *Numenak* izeneko antzerki obra ikusi ahal izango dute etxeko txikiak. Euskal mitologiako pertsonaiak agertuko dira oholtzaz

gainera, haurrak entretenitu eta gozaraztera.

Otieta parkea, 18:00etan. Doan gonbidapenekin.

IGANDEA 5

LASARTE Lehiaketa

Lasarte-Oriako Xuhakan Txakur

ZINEMA

USURBIL

Larunbata: 16:00, 18:30, 21:00.

Igandea: 16:00, 18:30, 21:00.

After. Almas perdidas

Ostirala: 16:00, 18:30, 21:00.

22:00.

Larunbata: 16:30, 19:15, 22:00.

Igandea: 16:30, 19:15, 22:00.

Maligno

Ostirala: 16:30, 19:15,

Larunbata: 16:30, 19:15, 22:00.

Igandea: 16:30, 19:15, 22:00.

Shang-Chi y la leyenda de los

Ostirala: 16:00, 19:05, 22:10.

Larunbata: 16:00, 19:05, 22:10.

Igandea: 16:00, 19:05, 22:10.

Diez Anillos

Ostirala: 16:00, 19:05, 22:10.

Larunbata: 16:00, 19:05, 22:10.

Igandea: 16:00, 19:05, 22:10.

Elkarteak II. Erabilgarritasunezko Kirol Mendetasun Lehiaketa antolatu du.

Arrapide pasealekua (Bugati erregearen parean), 09:00etatik aurrera.

ASTEASU Bisita gidatua

Asteasuko Udalak Muskerren bidea egiteko bisita gidatua antolatu du. Asteasuko plaza izango da elkargunea, eta antolatzaileek jakinarazi dute ekintza horretan parte hartzeko aurrez izena ematea ezinbestekoa da. Horretarako 943 691 907 telefono zenbakira deitu dezakete interesatuek, edo udala@asteasu.eus helbidera mezu bat idatzi.

Herriko plaza, 11:00etan.

ASTEARTEA 7

DONOSTIA Lehiaketa

Nahia Zubeldiak Elkanoren itsas bidaian inspiratuta idatzitako poemak inguruko errezitaldi musikatuak eskainiko dute. LUMI izeneko taldea osatzen dute Zubeldiak berak eta Manu

Matthysek, eta, hain zuzen ere, bikote hori aritu da agertokian. Antolatzaileek iragarri dute sarrera doakoa izango den arren, gonbidapenak eskuratzea ezinbestekoa izango dela, eta, horiek, Victori Eugenia Antzokiko lehiatilan eskuratu ahal izango dira, emanaldiaren egunean bertan, 17:00etatik aurrera.

Victoria Eugenia Antzokiko Club aretoa, 19:00etan.

OSTIRALA 10

ZUBIETA kontzertua

Demode Quartet musika taldeak *Epa!* izeneko ikuskizuna eskainiko du. Antolatzaileek jakinarazi dute kontzertura joateko beharrezkoa dela sarrerak eskuratzea, 10 euro balioko ditu. Egunean bertan sarrerarik eskuragarri geratuz gero, horiek erosteko aukera izango da, baina alde aurretik ere erosteko aukera jarri dute. Horretarako usurbilkultura.eus/eu/ikuskizunak/demode-quartet-epa jarri dute interesatuen eskura. Errebote plaza, 18:30ean.

Udako argazki lehiaketa martxan du TXINTXARRI-K

Txintxarri

Bueltatu zara udako oporralditik? Gogorra egiten ari zaizu itzulera? Bada, TXINTXARRI aldizkariarekin oporraldi garaian bizitako uneak gogora ekartzeko aukera duzu!

Non ibili zara, mendian? Edo hondartza, kanping edo hotelen batean? Ziur gaude, egon zaren lekuan egon zarela, bertan bizitako uneak izoztu

dituen argazkiren bat edo beste aterako zenuela, ezta? Bada, begira, TXINTXARRI-K udako argazki lehiaketa prestatu du.

Bi baldintza bete beharko dituzu bertan parte hartzeko; argazkiak originala izan beharko du (norberak egindakoa), eta, gehienez hiru argazki bidali ahal izango ditu partehartzaile bakoitzak. Argazkiak bidaltzeko, ordea, hiru modu izango dira: 646 82

44 66 telefono zenbakira WhatsApp bat bidalita, txintxarri@ttakun.eus helbidera idatzita, edo www.labur.eus/txintxarri2021 atarian argazkia zuzenean igota.

Irailaren 12a izango da parte hartzeko azken eguna. Horrela, behin data hori igarota, bildutako argazki guztiak aldizkariaren webgunean ikusgai jarriko dira, eta onena aukeratzeko bozka epea



2020ko Udarako argazki lehiaketako irabazlea. TXINTXARRI

zabalduko da; irailaren 13tik 19ra izango da horretarako aukera, eta hilaren 20an jakinaraziko da garailea.

Argazki irabazlearen jabeak, Aldika produktu sorta eder bat eskuratuko du. Animatu parte hartzera, eta zorte on denoi!



2021-2022 ikasturtea UDAL EUSKALTEGIAN

A1 eta A2 tituluak euskaltegian bertan lortzen dira.
B1 (1HE), B2 (2HE) eta C1 (3HE-EGA)eko azterketak egiteko prestatu.

IKASTAROAREN IRAUPENA: IRAILAREN 23TIK EKAINAREN 23RA

- Astelehenetik ostegunera. Astean 10 ordu. Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan
- Hiru ordu-tegi aukeran: 9:00-11:30 | 15:00-17:30 | 18:30-21:00.
- On-line (BOGA).
- 16 urtetik gorakoentzat.

MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 22RA ARTE

DIRU-LAGUNTZAK BADAUDE. GALDETU BALDINTZAK

Lasarte-Oriako UDAL EUSKALTEGIA (Bekokale bidea, 1) Tel: 943 36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-19:00




EPA LASARTE HHI 2021-2022 ikasturtea

MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 17RA ARTE

- Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...).
- Bigarren Hezkuntza (DBH-ko titulua ziklo ertaina eta gorena egiteko, 4 hilabeteko ikastaroak)**
- Gaztelania atzerritarrentzat.
- EUSKARA (0-1-2 mailak).

Tel. 943 37 64 43 / 943 36 66 08 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarate.eus

aurretiko hitzordua eskatzeko, deitu





txintxarri

Udako ARGAZKI LEHIAKETA

Bidali zure argazkia irailaren 12ra arte (12a barne)

. 646 82 44 66 (whatsapp)
. txintxarri@ttakun.eus

Argibideak: www.labun.eus/txintxarri2021

Argazkia: Dieny Portinanni

SARIA **aldika**  produktu bereziak